# Rs1.2. Lehen Hezkuntza bukatu ondoren duten kurrikuluaren ezagutza-maila.

**Arloetan duten kurrikuluaren ezagutza-maila: Matematikak, Gaztelania eta literatura eta Atzerriko hizkuntza Lehen Hezkuntzaren (LH) 6. Ikasturtean.**

DIFERENTZIA ESTATISTIKOKI ADIERAZGARRIAK EZAGUTZEKO, IKUS LEHEN HEZKUNTZAREN EBALUAZIOA 1999 (http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/indexargi.htm)

Adierazle honek Gaztelanian, Matematiketan eta Ingelesean duten kurrikuluaren ezagutza-mailaren berri ematen du Lehen Hezkuntza bukatzean eta aspektu hauei dagokienez: hizkuntza-ereduak, titulartasuna, sexua, lurralde historikoak eta eskola-orduak. 1999. Urtean egin zuten 6. Ikasturtearen ebaluazioan oinarrituta dago, Estatu osoan egin zuten eta EAEko erakusgai zabalagoa duen horretan. Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI) argitaratu zuen: Lehen Hezkuntzako 6. Ikasturtearen ebaluazioa 1999. Vitoria-Gasteiz, 2002.

1995. urtean egin zuten ebaluazioaren aldean, egiaztatu ahal izan dute 1995. urtetik 1999. urtera bitartean Gaztelanian izandako puntuazioak handitu direla (248tik 353ra), Matematiketan, ordea, puntuazioak gutxitu dira (276tik 259ra). 1995. urtean ez zuten ingelesaren arloa ebaluatu.

Hizkuntza-ereduak eta sareak kontuan hartuz gero, balizko alderaketa guztiak agortu gabe, honakoa egiaztatu dute: Ikastetxe pribatuetako A eta B ereduetako ikasleek emaitza nabarmen handiagoak eskuratzen dituzte Gaztelanian, gainontzekoen aldean; Matematiketan ere, ikastetxe pribatuetako ikasleek publikoetakoek baino emaitza hobeak lortzen dituzte nabarmenki; baina diferentzia hauek desagertzen dira gurasoen ikasketa-maila eta urteko ordu lektiboak kontrolatzen ditugunean

Eta ingelesean, A eredu pribatuaren eta eredu publikoen arteko aldea handia da lehendabizikoen alde. Diferentzia hau, gurasoen ikasketa maila eta eskolaz kanpoko ingeles orduetan oinarritzen da.

Sexua aintzakotzat hartzen baldin badugu, puntuazioetan dauden ezberdintasunak esanguratsuak dira nesken alde Gaztelania eta Ingelesean, Matematiketan, berriz, ez dago aipatzeko moduko alderik.

Lurralde historikoei dagokienez, Arabako ikasleek emaitza nabarmen handiagoak lortu dituzte Bizkaia eta Gipuzkoako ikasleek baino Gaztelania eta Matematiketan; emaitza hauek berberak gertatzen dira Bizkaia eta Gipuzkoako ikasleen artean. Ingelesari dagokionez, emaitzen aldeak handiagoak dira Araba eta Bizkaian Gipuzkoakoen aldean. Kontuz: Lurraldea ez da estratifikazioko aldagaia.

Urteko eskola-orduak aztertu ondoren, ezberdintasun adierazgarriak antzeman ditugu Gaztelania eta Matematiketan urtean 950 eskola-ordu baino gehiago ematen dituzten ikastetxeen eta kopuru hori baino gutxiago ematen dituztenen artean.

## Rs1.2.1 Taula

Lehen Hezkuntza (LH) bukatzean ondoko arloetan duten ezagutza-mailari buruzko datuak: Gaztelania, Matematikak eta Atzerriko hizkuntza. 1995. eta 1999. urte bitartean (TRI puntuaziotan).

| Emaitza Orokor | Gaztelania | Matemat. | Ingelera |
|---|---|---|---|
| 1995 | 248 | 276 | |
| 1999 | 253 | 259 | 275 |




## Rs1.2.1 Grafikoa

Lehen Hezkuntza (LH) bukatzean ondoko arloetan duten ezagutza-mailari buruzko datuak: Gaztelania, Matematikak eta Atzerriko hizkuntza. 1995. eta 1999. urte bitartean (TRI puntuaziotan).




Oharrak:
- TRI puntuazioak: TRI edo Teoría de Respuesta al Item (*Itemi emandako erantzunaren teoria*)delakoa erabiltzen duten ebaluazioek, ikasleen errendimendu indibidualaren emaitzak 250eko batez besteko globala eta 50eko desbiderapen tipikoa duen eskala batean aurkeztea ahalbidetzen dute.
- 1995. urtean ez zuten Lehen Hezkuntza ingelesaren ebaluazioa egin .

Iturria: LHko 6. Ikasturteko ebaluazioa 1995 eta 1999. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila eta INCE.

## Rs1.2.2 Taula

Lehen Hezkuntza (LH) bukatzean ondoko arloetan duten ezagutza-mailari buruzko datuak: Gaztelania, Matematikak eta Atzerriko hizkuntza, sare eta hizkuntza-ereduen arabera. 1999. urtean (TRI puntuaziotan).

DIFERENTZIA ESTATISTIKOKI ADIERAZGARRIAK EZAGUTZEKO, IKUS LEHEN HEZKUNTZAREN EBALUAZIOA 1999 (http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/indexargi.htm)

| Emaitza Orokor | Gaztelania | Matemat. | Ingelera |
|---|---|---|---|
| A Eredua Pub. | 239 | 248 | 268 |
| B Eredua Pub. | 250 | 246 | 257 |
| D Eredua Pub | 247 | 256 | 274 |
| A Eredua Hitzar | 270 | 271 | 285 |
| B Eredua Hitzar | 263 | 265 | 283 |
| D Eredua Hitzar | 242 | 256 | 276 |
| | | * | * |

* A eta B eredu hitzartuen arteko aldeak gurasoen ikasketa maila eta ikastordu kopuruak ondorioak dira

## Rs1.2.2 Grafikoak

Lehen Hezkuntza (LH) bukatzean ondoko arloetan duten ezagutza-mailari buruzko datuak: Gaztelania, Matematikak eta Atzerriko hizkuntza, sare eta hizkuntza-ereduen arabera. 1999. urtean (TRI puntuaziotan).




Iturria: LHko 6. Ikasturtearen ebaluazioa 1999. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila eta INCE.

**Rs1.2.3 Taula**

Lehen Hezkuntza (LH) bukatzean ondoko arloetan duten ezagutza-mailari buruzko datuak: Gaztelania, Matematikak eta Atzerriko hizkuntza, sexuaren arabera. 1999. urtean (TRI puntuaziotan).

| Emaitza Orokor. | Gaztelania | Matemat. | Ingelera |
|---|---|---|---|
| Neska | 260 | 256 | 281 |
| Mutila | 248 | 261 | 271 |

**Rs1.2.3 Grafikoa**

Lehen Hezkuntza (LH) bukatzean ondoko arloetan duten ezagutza-mailari buruzko datuak: Gaztelania, Matematikak eta Atzerriko hizkuntza, sexuaren arabera. 1999. urtean (TRI puntuaziotan).




Iturria: LHko 6. Ikasturtearen ebaluazioa 1999. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila eta INCE.

**Rs1.2.4 Taula**

Lehen Hezkuntza (LH) bukatzean ondoko arloetan duten ezagutza-mailari buruzko datuak: Gaztelania, Matematikak eta Atzerriko hizkuntza.Emandako orduen arabera. 1999. urtean (TRI puntuaziotan).

| Emaitza Orokor. | Gaztelania | Matemat. | Ingelera |
|---|---|---|---|
| 850-949 ordu | 250 | 254 | 272 |
| 950-1049 ordu | 261 | 269 | 279 |
| 1050 baino gehi. | 271 | 284 | 315 |

**Rs1.2.4 Grafikoa**

Lehen Hezkuntza (LH) bukatzean ondoko arloetan duten ezagutza-mailari buruzko datuak: Gaztelania, Matematikak eta Atzerriko hizkuntza.Emandako orduen arabera. 1999. urtean (TRI puntuaziotan).




Iturria: LHko 6. Ikasturtearen ebaluazioa 1999. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila eta INCE.